

Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko martxoaren 24a / VI. urtea / 171. zenbakia

Erriberako Korrika



ALBERTO BARANDIARAN

Igandean amaituko du ibilbidea Korrikaren 9. ekitaldiak, 2.150 kilometro zeharkatu ondoren. Horietatik ia 750 Nafarroan zehar izan dira, alegia ibilbidearen herena. Betelutik sartu eta Ziorditik atera, mendialdea, Estellerria, Erribera, Tafallerria, Aezkoa, Baztan, Sakana... inguru gehienak alaitu ditu une batez euskararen aldeko manifestazio bitxi honek. Tokian tokiko giroak ezberdinak izan arren, Erriberakoa beti bitxi askoa suertatzen da, eta aurten are gehiago. Aurtengoa da euskararen urtea landa zabaleko alderdi honetan, Tuteran egin behar den Nafarroa Oinez dela medio, eta animoak pizturik daude, pizturik daudenez. Astelehenean abiatu ginen Tuteratik Korrika honekin, erriberaçarrekin, eta Tafallarainoko zatia egin genuen: 60 kilometro. Erriberako Korrika.

ANTZERKIA



Iruña Pequeño Teatro antzerki taldeak 'Santa Juana de los Maderos' izeneko lana taularatuko du gaur ostirala, hilak 24, Zizur Nagusian. Udalak antolatutako zikloaren barruan, gaueko 10.00etan hasiko da.

'Printze Txikia' izeneko antzezlan taularatuko du igande honetan, martxoak 26, Sambhu Teatro taldeak Iruñean. Nafarroako Antzerki Eskolak antolatu duen haurrentzako zikloaren barruan, arratsaldeko 6.00etan hasiko da, Eskolan bertan.

ZINEMA



'Detrás del tiempo' Mirentxu Purroy zinema zuzendariaren filma ikusteko aukera izanen da gaur arratsaldeko 8.00etan Arrano Elkartearen. Zuzendariak berak egiten du aurkezpena eta pelikularen ostean eztabaida izango da.

Zinema Mexikarrari buruzko zikloan 'El apando/Celda de castigo' izenburuko pelikula botako dute heldu den asteartean, martxoak 28.

BERTSO SAIOAK



Anjel Mari Peñagarikano eta Sebastian Lizaso bertsolarien saioa izanen da gaur ostirala, martxoak 24, Erratzuko Elkartearen. Bertso afari moduan antolatua, gaueko 9.00etan hasiko da.

Iñaki Murua eta Sebastian Lizaso bertsolariak ariko dira bihar larunbata, hilak 25, Berueteke herriko tabernan.

Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua bertsolarien saioa izanen da igande honetan Arantzan, Antton Maiz pilotariaren omenez. Bertso bazkari moduan antolatua.

IKASTAROAK



'Soldadutza: atzo eta bihar' izenburuko ikastaroa antolatu dute IKAK eta GITE Elkarteak heldu den asterako. Astelehen eta asteartean burutuko da ikastaroa bera, Elkartearen, eta asteazkenean 'Noizko Armadara joan beharrik ez?' izenburuko mahaingurua izanen da Zaldiko Maldiko Elkartearen, guztientzat irekia.

NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

Testamentu berriaz, berriz ere


Historiari arretaz begiratzeko zaionean, euskaldunen ahozkotasanaren topikoa ankaz gora gelditzen da; euskarak inprentari etekin txikia atera izana, zoritxarra izateaz aparte, baldintza kultural eta politiko jakin batzuk bultzatutako gertaera da; horren aldean, ahozko kultura subsidiarioa da, gaitzertikoa,

nahi izate horrek, umekeria horrek, pena ematen dio arrazoi politiko eta kulturalak poxi bat aztertzeke lana hartu duen edozeini. Gaur egun badakigu, jakin beharko genuke behintzat, kalbismoak —elizaren erreformak, oro har— bultzatu zituela tokian tokiko hizkuntak, eta Europa osoko hizkuntza askorentzat

leak ez zuen jarraipenik izan. Baina hau beste kontu bat da, jakina.

Londresko enkantea aukera ezin hobea zen horretaz guztiaz mintzatzeko eta eztabaidatzeko. Horren ordez fikzio batetik aterata ziruditen osagarriekin libertzearrekin konformatu gara.

Aipamen berezia Marcotegui



eta ez mitifikatu beharreko zerbait. Baina hain gaude itsututa gure eguneroko giro intelektual mixerablearekin ezen hemen jende printzipal askok eta askok, oraindik ere, justifikatzen duela euskararen literatur tradizio —profanoa, administratiboa, zientifikoa...— urria zabarkeria edo konplot-en teorien bidez, eta are, ahozkotasanaren bertuteak goraituz. Patua: 'Eneko Aritzak, ezkutu gainean igo eta Errege izendatu zutenean, erabaki izan balu idatziak euskaraz behar zuela...'. Gertaerak patu iraganari begira jarriz —izaera 'erretroaktibo-ekin'— azaldu

Testamentu Berriaren itzulpena funtsezko izan zela, hizkuntza moderno eta funtzionalaren oinarriak ezarri zituelako. Hara non, gure arbasoek, Aitorren inguruan dantzari, etengabe txalaparta joaz eta bertso kantari uste genituenak, 1571 urtean Europan bere tokia harrapatu nahi zuen herri bat osatzen zuten, alemandarrak edo italiarrak bezala, hizkuntza idatzia eta guzti. Baldintza kulturalak bertako hizkuntzen aldekoak zirelarik, ordea, euskara luze gabe bideragarritasun eta baldintza politikorik, Nafarroarik gabe gelditu zen, eta Leizarragaren ahalegin alima-

jaunarentzat, errikidulurik gorriena egin duena, inork aurpegi-gorriak aterarazi ez dizkiolarik, bide batez esanda. Zeren, enkantearen berri bi egun aurretik eta prentsan jakitea gaizki baitago, eta bi kilo mixerablerekin joan bertara, mila pezetarekin angulak erosi nahi izatea bezalakoxea baita. Baina gainera hori guztia batera lotsarik gabe eta ozenki aldarrikatu ondoren, Txomin del Regato, Fernando Amezketarra, Pello Kirten, Louis de Funes edo Paco Martinez Sorriaren pare gelditu da. Edo pixka bat beheraxeago, beharba-

ASTEKO PERTSONAIK



Oscar Lasa
Pilotaria

Partidu bikaina eginez irabazi zuen joan den igandean Oscar Lasa pilotari gazteak Bigarren Mailako Eskuz Banakako txapelketa. Etxarri-Aranatzen jaioa, indartsu ari da gora egiteko bidean Oscar Lasa eta hastear dagoen Lehen Mailako txapelketan parte hartuko du, Ariznabarretarekin batera. Pozik agertu zen Sakanako pilotaria partiduaren ostean, leher eginda bukatu zuela aitortu eta gero. «Banekien txapela irabazteko asko sufritu behar nuela eta horrela izan da, baina azkenean lortu dut», zioen pilotari gazteak. 23 urte bete berriak, pilota munduan gauza asko egiteko prest azaldu da, arerio gogorak izan arren. Zaharrak badoaz eta gazteak heldu dira, bizitzak agintzen duen bezala.



Jose M.º Rodríguez Otxoa
Hizkuntz Politikarako burua

Euskara aukera ona' lemapeko matrikulazio kanpaina aurkeztu du aste honetan Nafarroako Gobernuak Hizkuntz Politika sailak. Aurreko urteetan bezala, euskarazko ereduaren matrikulazio kopurua handitzea da kanpainaren helburua, eta bete ere egin da, urtetik urtera gorakada somatzen baita A eta D ereduaren ikasten duten haurren kopuruetan. Egun, haur hezkuntzan ikasten duten haurren % 24 D ereduaren daude matrikulaturik eta heldu den ikasturterako kopuru hori gaitzertuko da. Jose Maria Rodríguez Otxoa Hizkuntz Politikako burua azaldu zuenez, «lebitasunaren aldeko apostua egin dugu eta bi hizkuntzak ongi jakiteak dituen abantailak azaldu nahi ditugu kanpainarekin».

AHAZTU GABE!

LEHIAKETAK



Eusko Ikaskuntzaren XIII. Kongresua azaroan egiteko dela eta, Elkarte Lehiaietarako deialdia egin du, Kongresua aurkeztuko duen kartela aukeratzeko, hain zuzen. Lehiaketan nahi duten guztiek har dezakete parte eta kartelen irudiak 'Zientzia, Teknologia eta gizarte aldaketa Euskal Herrian. Zamudio, Azaroak 29-Abenduak 1' esaldia ipini behar da. Bakoitzak nahi dituen orijinal guztiak aurkeztu ditzake, baina beti ere formato bertikalean eginak, 100 bider 70 zentimetro gehienez eta 70 bider 50 gutxienez neurritakoak. Lanak Elren edozein bulegotan aurkeztu daitezke 1995eko apirilaren 28a baino lehen; gutun itxi bat eman behar da, barruan egilearen izena eta helbidea eta kanpoan kartelaren lena azalduz. Epaimahaiaren erabakia maiatzaren 10ean ezagutaraziko da. Sari bakarra izanen da, 200.000 pezetakoa, eta irabazlearen kartelaren jabetza Eusko Ikaskuntzarena izango da. Aurkeztu diren eta saria jaso ez duten kartelak Elren bulegotan bildu ahal izango dira maiatzaren 10etik aurrera. Lehiakideek, lehiaketan parte hartzearekin, oinarri hauek bere osotasunean onartu behar dituzte.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenetik 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazkenetik 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztiak gaineik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Baigorri

17. aste kulturala hurbiltzen

LUTXI FOURCADE / BAIONA

Frantziako kargudun politikoek zazpi urtero arazo larriak dituzte Lehendakartzako hauteskondeen egunak finkatzeko. Hots, apiril ondarra eta maiatz hasiera nahiko garai txarra da urtero Baigorriko haranak bere aste kulturala ospatzen baitu. Jakin dugunez, konpetentzia jasanezina baita, hauteskondeen lehen itzulia apirilaren 23an finkatu dute eta bigarren itzulia maiatzaren 7an arrazoi simple bategatik: apirilaren 30ean Nafarroaren Eguna ospatuko da Baigorri. Bidaxunetik Tuteraraino eta Arbotitik Zangozaraino, ehunka nafartar bilduko dira mugatik hurbil Nafarroa Beherean egiten den festa herrikoian.

Beste urteetan bezala hitzordu nagusia izanen da egun hori, nahiz eta beste ekitaldien garantzia ez den ahanzi behar. Azpimarratu behar da 17. aldi honentzat aldaketak sartu dituztela antolatzaileek, irekidura berria bilatuz. Negu osoan bilerak egin ondoren, kantonamenduko Basaizea elkartetik kanpo lagunak biltzea helburutzat finkatu zuten antolatzaileek, ahal bezainbat jende hunkitzeko, gazteak gehiago inplikatzeko euskal kultur munduan.

Rock gauarekin abiatuko da aste kulturala apirilaren 29an eta bi talde etorriko dira Nafarroatik, Patagonia Iruñeko taldea baita, eta Pottoka band Baztangoa. Biharamunean, usaiako Nafarroa-



Zangozako ziganteak egonen dira berriro Nafarroaren Egunean.

ren Eguna izanen da eta gaitero, txistulari eta txarangek goizetik karririk alaituko dituzte. Ondotik, eskulan erakusketak elizaren ondoan ofiziale franko bilduko ditu; «denbora ederrarekin agian», antolatzaileek espero dutenez, iazko erakusketak nahiko euritsua izan baitzen. Gainera plazan Zangozako ziganteak agertuko dira eguerdi hirian, 1.200 bazkaltiarrek bildu baino lehen. Bazkariko denboran, berriz, kantari anitz agertuko dira: Xalbador eta Ihidoi, Aire ahizpak, Jojo eta Ramuntxo, Erramun Martikorena eta bertsola-

riak, besteak beste. Bazkaritik landa, arratsaldeko ikusgarrian parte hartuko dute Otsagabiako dantzariak (aspaldiko partez), Baztangoek eta Garaztarrak taldeak. Ondotik, erromeria alaituko du Ardatza taldeak.

Kultur asteari dagokionez, aurtengo animazioak ez dira iraganen aste osoan. Alabaina Haurren Eguna atxiki dute eta Bidarrain iraganen da asteazkenarekin. Mendiko ibilaldiak, oinez ala zaldiz, erreken jaitea, ikusgarria, antolatzaileek ekitaldi franko eskainiko diete kantonamenduko haurrei. Bestalde,

asteburuan mahaingurua eginen da laborantzaz, aztertzeo gazteak nola lot laborantzari. Ondoko larunbatekin, dantzaldia antolatuko du Basaizea elkarteak Orzaizeko ikastolarekin batera, eta biharamunean —Alduden hain segur ere— antzerkia eskainiko dute. Aurtengo berritasunetan, azpimarratu behar da Urepele, Aldude eta Bankako gazteak bildu direla urtean zehar, Basaizeatik kanpo, aste ondar berezia antolatzeko gaineko herri batean. Mintzaldia eskaintzeaz gain, kantaldi/kontzertua proposatuko dute.

Heleta

Kabale franko primaderako ferian

L.F. / HELETA

Azaroan iragaten den Heletako feria fama haundikoa izanik ere, Santa Kattalina kari, udaberriko feria ere aspalditik iragaten da. Azaroko egunak eredutzat hartuz, lehen eguna zaldiei dedikatua da, eta bigarren egunean behiak ikusten dira plazan.

Primaderako feria iragan da joan den aste buruan eta kurios andana hurbildu zen Heletatik joan den igandean, denbora ederra lagun. Kabale franko ikusgai zen plaza erdian, zaldi ala behor, nahiz erosle gutxi bildu. Hots, kanpotar franko etortzen badira neguan, primaderan aldiz eskualdeko erosleak baizik ez dira etortzen feriar. Hala ere, tratuak egin zirela azpimarratu zuten antolatzaileek. Pottoken erakusketak ere egin zuten Pottoken elkarrekin, nahiz eta azaroan baino gutxiago ekarri zuten.

Biharamunean, behi lehiaketaren eguna zen eta denbora ederra izan arren jende gutxi agertu zen. Alta, 90 behi gorri ekarri zituzten inguruko hazleek. Kabale ederra ikusteko parada izan zen, baina batzuek dolutu zuten kalitate desberdinekoen nahasketa. Hala nola, ondoan ikusgai ziren etxeko kabaleak eta Parisko lehiaketan sarizatutako behi edo zezenak. Eta nola ez aipa Gazteak izenekoen zezenak ukan duen arrakasta, zenbait egun lehenago bigarren saria lortu baitzuen Parisko Laborantza Ferian, Sauveur Etxeverriren plazer handientzat.

Iruñea

IRUÑEA

Oraintxek bizikletendako aparkalekua zabaldu du Lindatxikia kalean duen egoitzan. Bizikletak erabiltzen dituen mezulari enpresa honek, lau gurgil dituzten ibilgailuen nagusitasuna agerian utzi eta bizikleten aldeko apostua egin du. Aparkaleku berriarekin, halaber, hirian barna mugitzeko bizikleta erabiltzen duten guztiei, non uzteko aukera eskaini die.

Oraintxek Iruñeko biztanle guztiei zabaldu die aparkalekuko atea, «berez gurea den lekua» berreskuratu asmoz. Txirrindulariei bizikleta non utzi eskaintzeaz gain, egun hiri guztietan dauden arazoak mañai gainean jarri nahi izan dituzte Oraintxeko kiðeek, hala nola, ibilgailuen kutsadura, istripuak eta abar.

Bizikleta gainera, kirola egiteko edo paseatzeko tresna izateaz gain, lantresna ere bada

eta hori aldarrikatzen du Oraintxek.

Bizikletaren alde gauza asko erran daiteke Oraintxek ziurtatzen duenez eta adibide gisa, hainbat hiritan bizikletaren erabilerrari buruz egin diren ikerketen datuak argitzera ematen dituzte. Denbora aldetik, adibidez, abantaila handia da bizikleta erabiliz gero. Hiriguneetan, besteak beste, kotxeek sei eta hamabost kilometro orduko batazbesteko abiadura mugitzen diren bitartean, bizikleta batek hogei eta hogeita hamabost kilometro ordu bitarteko abiadura lor dezake.

Diruari dagokionez, berriz, askoz merkeagoa da bizikleta,



Bizikletak non utzi bada jada Iruñean.

zalantza izpirik gabe. Gizabana-koentzat osasuntsuagoa dela ere

ezin uka daiteke. Baita naturarentzat ere, Europako Ekonomi

Elkartean eta Europako ekialdeko hainbat lurraldetan egindako ikerketek jasotzen dutenaren arabera. Berebilek egunerò lau haizetara zabaltzen duten kutsaduraz gain, halaber, eragiten dituzten istripuak ere kontuan hartzeoak dira, urtero, 250.000 lagun hiltzen baita hauen ondorioz.

Iruñeko biztanleek, beraz, badute bizikleta non utzi. Lindatxikiako aparkalekuan, gainera, konponketak ere egin daitezke. Oraintxek, bizikletaren erabilera bultzatu nahi du eta era berean, egun txirrindulariek hirian barna lasai ibiltzeko duten aukera eskasa salatu. Izan ere, Iruñean bizikletentzako zegoen pista bakarra 1988. urteaz geroztik ezin erabil daiteke. Oraintxek, halaber, interesa duten guztiei —bizikleta elkarteak, erakunde publikoak, eta abar— deialdia zabaldu die arazo hau konpondu asmoz eta Iruñeko txirrindulariek non ibili izan dezaten.



Erriberriko Korrikaren bi irudi: Erriberriko bidean lekuko-eramailearen bakardadea, eta jende gehienaren axolagabekeriaren artean Tuteratik ateratzen. ALBERTO BARANDIARAN

Goian Kaparrosotik ateratzen, arratsalde partean. Behean, Kaparrosorako bidean, errepide amaigabea zehar. ALBERTO BARANDIARAN

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Gaua gogorra izan da Joseba Carlosendako, gogorra izan denez. Goizeko ordu bi terdian hartu du Korrikaren lekukoa Milagron, eta orain, ia hamabi ordu geroago, Tuterako sarreran dago bere lagunarekin, karabana-zain berriro ere. Ia ehun kilometro eginda ere —horietarik hamabost bat korrika—, ez zaizkio betzuloak nabari bisaian. «Erriberako kilometro asko Iruñeko jendeak erosten ditu» azaldu du, «baina gero ez dira azaltzen, eta guk egin behar izaten ditugu, txandaka». Bero da Tuteran, eta eguna garbia da. Kortesera —Zaragozara— daraman bide-berriaren amaieran antzematen dira urtero Euskal Herria osoa zeharkatzen duen euskararen aldeko manifestazio bitxi honen argi distiratsiak, baina puska batean berandutuko dira oraindik korrikalariak eta laguntzarako kotxeak, luzeak baitira oso lautadak. Egun osoa darama Korrikaren 9. ekitaldi honen Ebro inguruan, euskara aspaldian ahaztu zuten lurraldean, baina hemen ere ez da falta laguntza. «Kortesen jende asko egon da» dio Josebak, «eta gauz, ba, denetarik». Nahiz eta Cierzoko haizeak gogor jo eta hotza izan nagusi ibilbide osoan zehar, Kadereita, Kastejon, Korrella, Zentroniko edota Ablitas barrena egin duten ibilbidean beti laguntzaileak izan dituztela azpimarratu du. Soilik bederatzietatik aurrera gelditu dira bakarrik lekukoaren eramaileak eta lekukoak, tipi-tapa ibiliz. «Jendeak lanera joateko ordua zuen», desenkusatzan da. Hortik aurrerako ibilbidea bi korrikalariaren artean egin da, bat kotxez eta bestea lekukoarekin, hiru kilometro txandakatu.

egiten da Korrika Erriberan. Gutxi duena gutxiarekin konformatzen da, baina hori ez da nahikoa azaltzeko Aragoi eta Erriberarekin muga egiten duten alderdi hauetako euskaltzaleendako festa honek —inorendako bada, hauendako baita festa Korrika— duen garrantzia. Urtean zehar urrun ikusten duten Euskal Herriko partaide sentitzen dira orduan, gertuago ikusten dute iparralde ondo-ondoan duten hegalea baino. Lehen kotxeak kanpoaldeko karrikak zeharkatzen hasi baino hiru ordu lehenago ez da beste ezertaz hitz egiten Tuterako taberna abertzalea bakanetakoan. «Hik zer kilometro egin behar duk?», «Argetaserako errepidekoa»; «prestatu al duk ikurrina?». Erriberan, baina. Irletatik kanpo, indiferentzia. Hamar minutu falta direnean hasten da jendea biltzen Foruen Plazan, karabanaren zain denak. Taxistak haserretu egiten dira plazan aparkatu duen Korrikako kamioiarekin, musikak ez dielako telefono deiak entzuten uzten. Harridura da gehien aurpegian nabari dena morez eta horiz pintatutako ibilgailuaren aurrean.

ERRIBERAKO EUSKALDUNEN URTEA 14.45etan Erriberako hiriburuan, baina erdigunera heldu bitartean doza bat baino ez dira. Han gehitzen zaizkie ikastolako haurrak, Arriaga Euskaltegikoak, LAB sindikatukoak, Amnisiaren Aldeko Batzordekoak... denak. Dauden guztiak. Hau Erriberako euskaldunen urtea baita, edo euskararen urtea Erriberan. Tuteran egin behar den Nafarroa Oinezko animoak piztu ditu, eta lehenago asteen hirian bertan egin zen aurkezpenak goia jo zuen: mila pertsona inguru bildu zen kiroldegian, Perez Sola alkatea buru

Luzeak, Erriberako kilometroak

Nafarroan izan da aste honetan Korrika 9, eta igandean eta astelehenean Erribera zeharkatu zuten, alderik alde. Ere-mu zabalak, lur sail puskek, beroa eta haizea. Jende gutxi: batzuen gogo beroa gehien axolagabekeriaren aurrean; lan itzela bakar batzuen bizkarrean... Ondorioz, kilometroak inon baino luzeagoak, baita ikusgarriagoak ere. Tuteran eta Tafalla bitarteko ibilbideari buruzko kontakizuna duzu honakoa.



zela, eta bere ahotik euskara adieraztean malkoak azaleratu ziren batzuen begietara.

Gutxi dira, baina, eta ahalegina bikoitza da, ezinbestez. Ebro ibaiaren gaineko zubia gaindituta, Argetasera daraman bide zuzen eta luzean sartzen da Korrika, eta, txarraka, korrikalari saldoari aleak erortzen hasten zaizkio. Korrikalari taldeko bat besterik ez da bi kilometro harantzago. Tuterainoko ibilbidea bakar batzuen artean egin den bezala, hortik aurrera aurpegi gero eta ezagunagoak egingo dira, eta hiriburutik 30 kilometro oraindik orain bertako karriketan aritu den jendea ikus daiteke, zenbait tarte kotxez egin ondoren.


Zati gogorra da Argetasoa. Bardeen inguruan, gogor jotzen du haizeak, baina beroa ez da apaltzen. Hirurak dira, eta tuteraz gaste batek eramaten du lekukoa. Soilik inguruko azientetako zaldi batzuek eta lur landuek dituzte lagun, eta, pixkanaka, hasierako aurpegi alaiaren tokian nekea, hurrengo taldea ikusteko nahia marrazten da. Kilometroak luzeegiak baitira: mila eta hirurehun metrokoak, gutxienez. Gainera, inork ez du kilometro bakar bat egiten, Erriberako landen zabalera zabalera baita benetan. Tuterako gaiteroak, Beterrri Peñakoak... taldeak txandakatzeko diru aurreratzen gaituzten kamioi gidarien barren eta keinuen artean, eta Romanen animoak dira orduan ozenagoak, ezagun franko baititu korrikalariaren artean. Goizeko lauretan eseri da antolatzaileen furgonetan, partaide guztiak grabatzen. Orain, eguerdia ondo pasata, hor dago, bokadiloa esku artean. Tarteak, grabatzen. «Eta prentsarekin zer gertatzen da?» oihukatzen du furgonetaren aldatuta egin behar dugunean. Berari ere antzematen zaio emozioa aurpegiak ezagu-

tzen dituenean, eta ez du detalletarik galtzen korrikaldiaz. Erriberako Korrikaren bideoa izango da, ezbaiz gabe, berarena.

KORRIKALARIAK BAKARRIK ARGETASEN 15.30etan sartzen gara.

Jendea kalera ateratzen da furgonetari etengabe darion musika entzuten duenean, ezin ulertuz edo zeinek hausten duen koskada ordua. Tuterako dira oraindik korrikalari gehienak eta **Baltesan** gara ordu laurden bat geroago. Paseoan ari diren emakumeek harrituta begiratzen dute ordu horietan zoroarena egiten ari den taldea, balkoiatarata ateratzen dira batzuk. Hortik aurrera, Bardeetako bazterretako eremuan, jasangaitza egiten da beste ahalegina. Hasieratik jende bera dagoela dirudi, kilometroak etengabe irensten dituztela. Animoak ematera behartzen du sentazioak baina paisaiak ez du laguntzen bakardade-gogo hori ezabatzen. Muinorik gabeko alderdi lauak, amaierarik gabeko errepideak, ez da besterik ikusten. Lurrak inguratzen gaitu, eta helmugarik gabeko ahalegina dirudi korrikalariarenak. Bakarririk daude erriberatarak.

Bat-batean, malda baten atzetik azaltzen da koadrila polit samarra, ikurrinak eta guzti. Hortik Erriberirainoko ibilbidean ohi-koak izango dira: Iruñetik eta Nafarroako hainbat tokitatik etorritako taldeak dira —Administrazioeko langileak, sindikatuetakoak, herrietako gazte koadrila, euskaltegietakoak...—, urtero zona honetara kilometroak erostera hurbiltzen direnak. Lagun koadrila gara dagoeneko. Errepidea estua da Kaparrosoko bidean, eta ilara luzeak osatzen dira berehala karabanaren atzetik, nahiz eta Foruzaingoaren laguntza izan. «Lan egi-



Urtean zehar urrun ikusten duten Euskal Herriko partaide sentitzen dira hemengo euskaltegiak Korrikarekin, eta gertuago ikusten dute iparralde ondo-ondoan duten Hegoalde baino.

tera, ostia!» bota du arroposturik ez ematera gonbidatzen duen aurpegiarekin korrikalariengandik gertu-gertutik igarodun kamioi gidari batek. Asto beltzarenak eta bi entzun behar izaten dituzte irratitik antolaketa lanetan aritzen direnek. «Eskerrak ez diegun erantzun» dio batek, «batzuk sutan zeuden eta».

Hamalau dira karabanaz arduratzen direnak, bi taldetan banatuta. Hamabi orduko lan txandak egiten dituzte, eta gehienak bizkaitarrak dira. «Orain arteko jendetzarik handiena Iruñean izan da, Donostian baino gehiago, eta giroa onena, Nafarroan, dudarik gabe». Nafarroan desberdin bizi delako lasterketa presako hau, Korrika egiten dutenen aurpegiari begiratzea besterik ez dago: burutik gora eramaten dute lekukoa, barrea ezaipainetan, eta hain bizia da hasierako erritmoa, jeisteko esan behar baitaie ia beti bozgailuetatik. Musuak eta besarkadak ematen dizkiote elkarri lekukoa hartzen dutenean, eta jauzika hasten dira musika aditu orduko.

Bostak dira, eta muino batean agertu diren Sakanako gazteek eta Iruñeko gaztetxeok kolore berezia ematen diote ibilbideari. Pankartak eta banderak ugaritzen dira, baita kantak eta oihiak ere, eta manifestazio algaratsuaen itxura guztia hartzen du konboiak, gidarien aurpegi harrituen artean. 17.25an Kaparrosan gaude, eta alimalzko giroak atzematzen du herria,

bertako harridurarako. Hortik aurrera taldeak finkoagoak egiten dira. Familiarragoa da orain erreleboa hartzen dutenen irudia: ordu egokia eta eguraldi aparta, bide eroso, ia laua. Jendea lasaiago dabil, argazkietarako prestatzen da, eta haurrak berriro nagusi dira: haiek eramaten dute lekukoa, haiek egiten diete irri laguntzailei, haiek jartzen dute abiadura handiko neurria, haiek dira protagonistak **Melida** ondoan.

Arrastiriak harrapatzen ditu **Erriberri** inguruko mahastiak, eta argazki eta bideo kamarendako unea da. Lekukoaren irudia zeruan marrazten da, eta eguzki izpiak soilik posterretan agertzen diren argazkietako kolorea jaurtitzen du karabanaren gainean. Okasio handietako kolorea da; herri hau, horrelakoekin txarretzeko kapaza izanik, enpresa aurpegiari begiratzea gai dela pentsatzera bultzatzen duen kolorea, lurraren kolorea.

Erriberria 19.00etan heltzen da lasterketa, eta dantzariak harrera egiten diote gazteluaren begiradapean. Hortik **Tafalla** doa zuzen-zuzen, iluntasuna nagusi dagoeneko. Eguneko unerik garrantzitsuenetakoa heldu da, eta bildu den jendeak ohore egiten die aurikuspenei. Ikastola-koak, euskaltegiak, intsumisoen aldeko gazteak, jendea oro har, jende asko karrikan. Plaza Nagusiko kafetegian, bitartean, ez da solasaldia eten, eta kafetxeak eta kroasanak eruz saltzen ari dira kanpoan hots indefinitua besterik aditu ez duten serbitzariak. Nafarroako hegaledearen irudi esanguratsua da: batzuen festa eta erreibindikazio giroa gehien indiferentziaren artean. Euskararen beraren irudia.

Korrikak aurrera darrai, hotsa besterik ez utzita. Aurrerago, Ar-taxona, Larraga, Berbintzana...

Lehen edertasuna

Galdera: Lucax da nere izena, eta bigarren pisuan bizi naiz. Zein da, zure ustez, erakargarria izan asmotan, pertsonak izan behar duen lehendabiziko edertasuna?

Erantzuna: Lucax maitea. Baudelair-i kasu egiten baldin badiogu, dudarik gabe, astapitokeria, lelo itxura. Egia esateko, Marilyn Monroe, Natalia Estrada, Marta Sanchezek elkarren antza baldin badute, horixe dute. Marrubizko gozoki batekin engainatzekoak direlako trazarak ematen dituzte. Inteligentziak, argi hutsak, maitaleak uxatzeko baino ez du balio. Sexu-Sagar-erresuma honetan ere sartzeko, haur kazu bihurtu behar.

Galdera: Alabaman jaio nintzen, etxe gozo batean. Harako galdera hura egin nahi nizuke. Amodioan gudan bezala dena zilegi al da?

Erantzuna: Alabamako etxe gozoko adiskidea. Bai. Hola da. Guda da amodioaren irudirik zorrotzena. Gure akaberainoko bidaia baino ez da Amodioa, besteak akitzen goazela. Gaztelaniaz esaten denez, *badira amodioak, zaien akabatzen baitute*. Amodio oro dira hiltzaile, ezta bat ere kendu gabe. Hala ere hitz emana dute akabatzen segitu ahal izateko, bizia ere eman behar dutela. Gorpil Eroa. Ez dira falta gainera, herioa eta gero benetako amodioa hasten dela uste dutenak. Hor daukagu Fenix izeneko hegaztia. Luma ederrekoa, arranoaren itxurakoa, Sortal-detik datorrena eta gizon-emakumeen arimaren sinboloa. Hilean bizia aurkitzen du, eta segi aurrera.

Eta kontraesanetan kontraesan handiena. Odolezko gudak, etsaiei zintzur egin eta kantak hasten diren horietan, amodioarengatik egiten omen eta bide dira. Aberriaren amodioarengatik, barridearen pentzeen amodioarengatik, Helenaren Amodioarengatik, edota Pepe Baratzuriaren amodioarengatik. Hola da, Alabamako etxe gozoko adiskidea.

Quevedok esan zuen. Neska, zureak ex dira begiak, medikuak baizik. Eta gauza



Intelligentziak, maitalea kuxatzeko baino ez du balio. Sexu-sagar erresuma honetan ere sartzeko, haur kakazu bihurtu behar.



'Grandville-n iruditan euskal errefrauak' liburuko irudi bat.

Ez dira falta herioa eta gero benetako amodioa hasten dela uste dutenak. Hor daukagu Fenix izeneko hegaztia.

jakina da garai hartan mediku eta hiltzaile esatea gauza bera edota beratsua zela.

Galdera: Gizon etsia naiz. Kobrezko San Kristobala urtu zuen Iturengo arotzak. Betiko famatu zen Iturengo arotza. Gaur egungo arotzak famatuko badira, haren bihotza, Anizetaren bihotz urtezina, haren bihotza urtu behar. Ba al dago edaririk edota edari magikorik gureak ez diren bihotzak gureganatzeko?

Erantzuna: Jakina badirela, eta oso onak gainera. Edozein botika-belar-dendatan aurki ditzakezu. Prezio onean, gainera, botika horiek oinarri daukaten belarra aro honetako da, eta 'en temporada' aurkitu ahal dituzu. Halaz ere, euskarazko *pozoin* hitza latinezko *potions*-etik dator, eta latinez *potions* hitzarekin edozein edari izendatzen zen,

bai magikoa bai arrunta. Ikustazu zer bilakaera izan duen horrek guar egungo pozoin-eraino. Beraz zurruta batez lortzen dena, beste zurrutakadaz gal daiteke.

Honetan sinisten hasiz gero, sinistu behar duzu begizkoetan, eta halako gauzetan, bertzenaz lehendabizikoak ez du eraginik izaten.

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Erlazantza liburuaz

Aita Frai Joakin Santa Barbarakoak 1827. plazaratu zuen bere lan bakarra



Joakin Lantziego Ruiz Eskidekoa arabar idazlea Oion-Labraza aldeko Orrubustun jaio zen 1753. urtean. Logroñon, Iruñean eta Burgosen burutu ahal izan zituen bere ikasketak, eta Korellan, apeztea burutzearekin batera, profesioari heltzen dio karmengo anaidean. 1808. inguru Frai Bartolome euskal idazle ospetsuarekin zegoen Markinan, eta 1814.ean hauxe berarekin eta beste anai batzuekin alde egin behar izan zuen frantsesealdia zela eta. Geroxeago, eta orduko giro nahasia baretu zenean, Markinara itzuli zen, berehalaxe Nafarroako Alesbesko komentura joateko behin betiko.

1827. urtean agertzen du bere lan bakarra: *Guía de colmeneros o tratado práctico de abejas, acomodado por su estilo y claridad a toda especie de gentes con una breve exhortación a fin de que los pudientes de esta península pongan abejas para utilidad del común y particulares, impreso a expensas de Juan José Olaño en Pamplona, 1827 por Francisco Erasun y Rada.*

Liburuxka honen egiletasuna labankorra hagi nonbait. Hasteko, egun arront ezaguna ez jazotzeaz gainera, Frai Joakin beraren kopiarrata dudamudatan ezar daitekeen zerbaite bada antzadenez. Julen Urkiza edo Frai Julian del Niño Jesús karmel izenez ezagun den apez ikertariak dituela hirur urte ageri bere *Karmeldarrak Markinan* lan mardul eta eruditioan beste egile baten aukera ematen du, hau da, aita Franzisko de la Cruz izeneko beste arabar baten hatz argigarria eskeintzen digun azalgai. Hauxe Zigoitiako Muruakoa bide omen, eta Markinako lekaide-txean 1821.eko abuztuan zendu zen. Espainiako karmeldarren biltzar orokorreko zenbait bilera honen eskuz idatzitako bi liburuxka argitaratzeko baimenen gaineko ezbaiaz iharduteko garatzen dira 1817. eta 1818. urteetan. Bata erlazantzaren gainean aritzen omen zen, bestea berriz sekain lurretako ortuei buruzkoa. Zensurak gora zensurak behera, erabakirik har gabe, egileari itzuli zitzaizkion beren bi eskuizkribuak 1819. urtean. Urkizaren ustez, Santa Barbararen lana honen lehenengo liburuaren moldatze txukunketa izanen litzateke besterik gabe. Ha-

la ote? Nihork ezin esan. Halere, oraiokan guri arras gehien inporta zaiguna liburu honen euskal itzulpena dugu. Alta, erdal lanarekin batera, euskarazkoa agertzen baitagerkigu: *Erle gobernatzalleen guidariya edo erleac gobernatzeco modua. Gende gucientzat chit modu egoquian eta claro paratua, ceñean ipintcen da eaquinde edo exortu labor bat, España onetako dezaqueen guciac para ditzaten erlatequiac gende comunaren eta particularren provechuraco. Aita fr. Joaquín de Santa Barbara Carmelitaç zazpi parte edo zatian gaztelaniaz arguitara emana, ipiñi du eusqueraz provincia Guipuzcoaco euskaldun batec, Iruñean, Francisco Erasunen echean, 1827 urtean.* Gipuzkoako euskaldun hau ere guziz ezezaguna gerta egun. Teoriarik, dena den, bada honetan ere, eta Urkizak orduan komentuan zagoen giputz bat izatea proposatzen du, Beasaingoa zen aita frai Manuel de San Joaquin hain zuzen ere.

Zazpi kapituluetakoa lana dugu hauxe, azpi-izenburuak berak dioskun gisaz. 110 horrialdeetan barna hainbat eta hainbat erabilgarritasunaz zeharo hornitu aholku plazaratzen digu irakasgai karmeldarrak. 85. horrialdean Nafarroako mendialdean zein Gipuzkoan eta Bizkaian erabili beharreko metodoez aritzen zaigu, berak bizitakoak behin baino gehiagotan adibidetzat jaso dituela. Esateko, 1822. urteko neguan Alesbesen suertatu hormak zirela eta, honela da mintzo: *Onetan neñgoela, asmatu nuen esan dedan janaria egitea [arrope izenekoaz ari da, ezta, sukrea eta kanela egosiz atera nahasmentaz alegia] eta ipiñi nien Plateretan paratzen nien bezain laster, oek estaltzen ziren erlez. Au onela ikusi nuanean poztu nintzan, eta sendoak eta fuerteak atera ziran. Etzuten dicha au izan esan deran Erriberan ezti purua erleai jateko eman zientenak, bada aetaço batzuk esan dedan denbora artian arkitu ziran erlerik gabe eta besteai berriz txit gutxi gelditu zitzaizten bizirik. Janari au emanéz, gorde nituan guñe conventuan zeuden sei erladi, milla ta zortzireun da oguei ta bigarren urtean, zeina izan zan chii otza, legorra ta Erribera-aetan izan oi dan loreric escasenecoa.*


■Iruñeko Hiria Xake Torneo itxiko 9. ihardunaldiko partida, 1995eko urtarrilaren 5ean jokatu.

Vadim Zvjaginsev, 2.585 ELOkoa (Errusia)-Victor Kortxnoi, 2.615 ELOkoa (Suitza).

1.d4,Zf6; 2.c4,e6; 3.Zc3,Ab4; 4.Zf3,c5; 5.g3,d5; 6.Ag2. Bere patu petralean utzi dute 'c4-ko' peoia. Partida nahastuko da, ondorioz. 6...c4; 7.0-0,0-0; 8.c5,Da5; 9.Dd4,Zc6. Beltzek ez dute presarik 'c5-eko' peoia jateko. Bitartean, 'c4-ko' peoia defendatzeari uko egin diote, defentsarik ez duelako. 10.Dc4,e5; 11.Ze4,Ze4; 12.De4,Ac5. Ikus koadroa. Damaz harrapatzea hobe zen. Txuriak, errukigabeak

izanen dira. 13.Zg5,g6; 14.Dh4,h5; 15.Ac6. Urrezko jokaldia. Beltzen babes-sarea apurtuta geratu da. 15...c6; 16.Ze4,f5. Bestela, 'Ah6' eta 'Zf6' edo 'Zc5': Pieza baten bukaera izanen zen. 'Eh7' jokaldiak ere ez zuen balio, beltzek ustekabeko konbinazioa dutelako.

17.Ad2. Oso ona! Beltzak dinbi-danba ibiliko dira hemendik aurrera. 'Zc5' eta 'Ab4' jokaldien arriskua dago. 17...Db8. Salbazioaren bila alferrik ari dira. Hori bai, txuriek amarauna ongi tajutu behar dute. 18.Ag5,Dd4; 19.Zc5,Dc5; 20.Ae7,Dd4; 21.Dd4,d4; 22.Af8,Ef8; 23.fG-d1. Beltzek burua makurtu zuten. Harriturik utzi zituen garaipenerako konbinazioak.



San Migelen irudiari, urtero Nafarroa osoan zehar egiten duen ibilaldian, kantatzen zaizkion koplak eta bertsoak franko ezagunak dira gure artean, baina ez dira dauden guztiak. Pedro Diez de Ultzurrun euskaltzale zenaren etxean aurkitu ditu orain sinatzen duenak bertso ezezagun hauek, San Migeli abesten zaizkion zaharrenetakoak, antza. Ez Azkuek ez Aita Donostiak ez zituzten inoiz bildu.

San Migelera bertso ezezagunak

E. ETXARTE BASKARAN / IRUÑEA

Urtearen zirrika geldi gabe itzulika ari denez, San Migelen irudia ikusiko dugu sarri herriz herri, Iruñeko merinaldean barena. Ezagunak dira Aralarko Aingeruaren gaineko kantu zaharrak eta bertsoak, irudia lapurtu zuteneko garaioak, batik bat. Bada, gaurkoan dakarkiguna, ez da sobera ezaguna, liburu batean argitara emana bada ere. Iruñeko alde zaharreko etxe batean topatu dugu, Pedro Diez de Ultzurrun zenaren etxean, hain zuzen ere.

Makinaz idatzitako paper horietan hamar bertso agertzen dira denetara, eta, hortaz landara, baita bertsoon nondik norakoa ere. Horren arabera, Latxaga jaunak igorri zizkion Diez de Ultzurrun mediku zenari, Etxarri Aranazko Jose Maizari hartu ondoren. Etxarriar horrek Josepa Auzmendi bere amari ikasia zuen. Eta hala dio hitzez hitz Latxaga jaunak: «Emakume hau Urbasako magalean dagoen Artxulo izeneko baserrian jaioa zen. Nonbait, Joserren ama, noizbait San Migelera igo zelarik, bere gazte garaian, aitonaren bati abesti zahar hau kantari ari zela entzun omen zion. Behin entzun eta ikasita etxera itzuli... Harritzekoa da nola honen antzekorik Azkuek eta Aita Donostiak ez zuten inon bildu, euskal kutsu handikoa baita eta San Migeli buruz ezagutzen ditugun guztietatik zaharrenetakoak hauxe izango dugu». Honatx kantua, hein batean, gaur egungo arau ortografikoen arabera moldatua:

I
Naparroako Uhartea Arakillen
San Migela allegatu giñen,
promesa egiteko deseo haundien
mendira igo gabe ez nuen jakiñen
Aingerue zeinen eder zegoan kapillen.

II
San Migel goien goien Aralar mendien
ezpata altxaturik gure guardien
kantatu nahi nioke umore haundien
Berak lagunduko dit oraingo aldien
beti izaten gera gu haren premien.

III
Eskatu behar degu Jaunari grazia

ondo esplikatzeko kanta honen hasia
Berak ikera dauka inperno guzia
Aingeruan mendean hango nausia
oinpean sarturikan ondo itsusia.

IV
Aingeruak hartzean eskuan ezpata
etsai gaistuarentzat asmo okerra da
laister eman zioten gaixtoaren plania
oinpean sartu gabe nahi zuan eskapa
gehiago egin aurren pagatutzen ezta.

V
Aingeruak hartzean Zeruko abisua
laister botatzen ditu aideko hegoak
baita korritu ere bideko leguak
manifestuan daude haren milagroak
baita kapillan ere bertan igaroak.

VI
Aingerua jeitsi zan gugatik mundura
eskola emateko Jaunaren modura
saiatu ikastera ordutik ordura
maisua ona daukagu joateko zerura
gehiago salbatzeko honera heldu da.

VII
Orain formatu behar degu laister. Erromara
penitentzia ekarri bertatik honera
konfesio on banarekin hori txit ona da
gure defentsorea Jauña hori bera da
salbatu behar degu inola al bada.

VIII
Eliza eder honetan behar degu bizi
ez degula joan behar hemendik igesi
pribilejio asko hark dñu merezi
Aingeru guztietan bera da nagusi
zeruetako bidea Berari ikasi.

IX
Zeruan badirade milloinka aingeru
danak han dabilta Jaunaren inguru
prinzipala dalarik badu zenbat gradu
San Migel aingerua guztietan buru
bihotzetik eskatu anparatuko du.

X
Naparroko erreinu haundia ta noblea
Aingeruak hor dauka kapillen gordea
asko estimatzen du mendiko lorea
ez det errex topatzen Santu bat hobea
guztionez ona da nahiz izan pobrea.

Horra kantua. Eta halaxe dio Latxagak Ultzurrun jaunari bidalitako gutunak: «Doinua oso herrikoa eta polita da...». Iduri duenez, Jose Maiza horrek kantu zahar asko zekizkien edo dakizki, eta Latxaga jaunak bere asmoa agertzen du horiek poliki-poliki argitara emateko. Orrialde honetara ekarri dugun kantuak argia ikusi zuen Latxagak berak San Migelen gainean idatzitako liburu batean.



San Migelen irudia, urtero Iruñera egiten duen bisitaldi batean.

Harritzekoa da nola honen antzekorik Azkuek eta Aita Donostiak ez zuten inon bildu, San Migeli buruz ezagutzen ditugun guztietatik zaharrenetakoak hauxe da eta».

«Olerki eder eta erraz asko dago»

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Mikel Elizaga kantautore nafarrak 'Apaiz gaztea' diskoa kaleratuko du hilabete barru. Ez da hau Lizarrako kantariak argitaratzen duen lehen lana, 1991n 'Agur t' erdi' izenburupean hamar bat abesti bildu baitzituen kasete batean. Bere aurkezpen lana izan zen hura. Oraingoa, ordea, askozaz bibrilagoa da eta azken hiru urteotan egindakoa jasotzen du hamar kantaren bitartez. Patziku Perurena, Sarrionandia eta Gabriel Celayaren olerkiei musika jarri die Lizarrakoak 'Apaiz gaztea' bere lan berrian.

EGUNKARIA.— Nola sortu da 'Apaiz gaztea'?

MIKEL ELIZAGA.— Azken hiru urteetan egindako lana bildu dut lan berri honetan. 'Agur t' erdi' nire lehen lanaren parean, hura aurkezpen gutuna bazen, azken hau, askozaz bibrilagoa da. Garai berekoak dira kanta guztiak eta elkarren artean batasuna badute. Koherentzia handia dago abesti guztien artean.

EGUNKARIA.— Patziku Perurena, Sarrionandia eta Celayaren hainbat olerkiri musika jarri diezu. Zergatik besteen poemak?

ELIZAGA.— Hitzaren profesionalak dira hirurak. Nire lana hitz horiei musika jartzea da, musika sortzea, musikaria bainaz ni. Hitz horiek poemak badira, hobe, eta nire gustokoak badira, askoz hobe. Gainera, nire kanten bidez poema horiek jendearengana hurbildu nahi ditut, bestela ez baitira irakurtzen eta badago olerki polit eta ulerterraz asko, musika jartzeko oso egokiak direnak.

EGUNKARIA.— Patziku Perurena, Sarrionandia eta Celaya.

ELIZAGA.— Patziku Perurenaren olerkiak hartu ditut batez ere oinarri, zazpi kanta bere poemekin egin ditut, osotara. Lagun baten aholkuari jarraituz aukeratu nituen 'Apaiz gaztearen kantutegi zaharra' Perurenaren liburuko olerkiak. Egia erran, olerki baino gehiago koplak dira, poeta batek



Bigarren diskoa kaleratuko du aurki Elizagak. OSKAR MONTERO

egindako bertsoak. Sarrionandiaren 'Amodioa' izeneko olerkiari ere jarri diot musika. Zehazki, Sarrionandiak euskaratutako poema da hau, Mohamed Al Kali poeta baita jatorrizko egilea. Oso polita eta ulerterraza da. Azkenik, Gabriel Celayaren 'Argiaren etorrera' olerkia ere sartu dut lan berri honetan. Olerki honen istorioa orain lau urte inguru hasi zen. Celaya eta bere emaztea Estellerriko Azedo herrira askotan joaten omen ziren eta orain lau urte omenaldia egin zioten bertan Gabriel Celayari. Ni ere bertan izan nintzen kantatzen. Hori dela eta, Zelaiaren olerki bati musika jartzea erabaki nuen. Mikel Taberna eta Jose Mari Sestorainek euskaratu dute. Hamargarren kanta instrumentala da.

EGUNKARIA.— Jazz, blues eta flamenkoa ere nahasten dituzu, besteak beste, lan berri honetan.

ELIZAGA.— Bai, halaxe erraten didate nire lagunek eta egia da. Hala ere, nahiz eta estilo ezberdinak elkarrekin egon, guztien arteko koherentzia badago, guztien ginetik

«Disketxeek egun ez dute arriskutzen, eta ezaguna ez bazara zaila da kantagintzaren merkatuan tokia aurkitzea».

nire estilo propioa nagusitzep baita. Abesti guztiak, gainera, garai berekoak dira, elkarren segidan eginak. Musika tresnei dagokienez ere, akordeoia, pianoa eta tronpeta kanta guztietan dira nagusi, guztiak elkarren artean lotuz.

EGUNKARIA.— Kantak sortzeaz gain, zeu izan zara 'Apaiz gaztea' lan berriaren ekoizle eta zuzendari. Zaila izan al da?

ELIZAGA.— Zaila eta neketsua, lan gogorra egin behar izan baitut. Hala ere, nire anaiak etxean estudio txiki bat dauka eta horrek, neurri batean baino ez bada ere, lana erraztu egin dit. Bestalde, anaiatz gain, musikari talde aparta izan dut on-

doan, Angel Otxotorena tronpeta jolea, Javier Ruz gitarra flamenkoa jo duena, Mikel Andueza nire lagun minak saxoa jo du bi abestitan, baita bere anaia Rogelio Anduezak tuba. Juan Carlos Aoizek, berriz, tronboia jo du. Javier nire anaia, bestalde, grabaketaz arduratu da eta bateria ere jo du. Musika, konponketak eta programazioa nire esku egon dira. Nirekin batera, hala ere, Isabel Octavio San Fermin ikastolako abesbatzako kideak ere abestu du hainbat kanta eta Isabel Montoia kantari profesionalak kantuak egin ditu. Argitalpena eta banaketa, azkenik, Gor disketxeak egingo du, ziurrenik, hilabete barru egongo dira kalean 500 konpaktu eta 500 kaset.

EGUNKARIA.— Nafarroako Gobernuak ere dirulaguntza eman dizu. Nahikoa al da laguntza hori kantagintzaren munduan goiari eutsi ahal izateko?

ELIZAGA.— Zalantzarik gabe eskertzekoa da Nafarroako Gobernuak eman didan dirulaguntza. Halako lana egiteko, ordea, ez da nahikoa. 1988. urtean ere, Nafarroako Kantautoreen Lehiaketa irabazi nuen baina ez nuen ezer grabatzeko aukera izan. Disketxeak ere, egun, ez dira batere arriskutzen eta oso ezaguna ez bazara, zaila da kantagintzaren merkatuan lekua aurkitzea. Nafarroan areago, komunikazio falta izugarria dago, baztertuta gaude. Urrun sentitzen dut nik neure burua. Nire lana Euskal Herri osoan zabaltzea nahiko nuke, baita kanpoan ere. Baina zaila da oso, baita Euskal Herrian ere.

EGUNKARIA.— Zein izan daiteke konponbidea?

ELIZAGA.— Andoni Sagastibeltza akordeoi jolea eta Fermintxo Garaikoetxearekin batera taldea sortu dut nik, nire abestiak plazaz plaza zabaltzeko asmoz. Eskaintza eskuragarria eta polita da eta jada Donostia, Gasteiz eta beste hainbat herritan egon gara. Geure burua ezagutzera eman behar izan dugu, herri eta hirietan, bestela oso zaila baita.

Mikel Elizaga

ABESLARIA



SOSLATA

Plaza gogokoago telebista baino

Mikel Elizagari familiatik datorkio musikarako zaletasuna eta txikitatik hasi zen gaita josten. Duo Paradis berbena taldea osatzen du bere anaiarekin batera. Mikel Elizaga musikatik bizi da hori baita bere lana, baita bere bizitza ere. 'Agur t' erdi' izeneko kasetak izan zen bere estreinakoa eta laster 'Apaiz gaztea' kalean izango da denen gozamenarako. Andoni Sagastibeltza eta Fermintxo Garaikoetxearekin batera, bere kantak Euskal Herriko txoko guztietara zabaltzen ditu. Joan den astelehenean ere Euskal Telebistako 'Goraintzi' saioaren grabaketan hartu zuen parte eta apiril aldera agertuko da ETBko lehen katean. Mikel Elizagak, ordea, plaza du gogokoago telebista baino, «ikusleen eta kantariaren arteko harremana zuzena baita».

NOSKI JATOR

© Zaldi ERDA

